



ANTIAGOAGULAZIOA KENTZEKO JARRAIBIDEA PROZEDURA INBADITZAILE EDO KIRURGIKORAKO

Ebakuntza kirurgikoa edo prozedura inbaditzailea egingo dizute. Ahotik antikoagulatzaile bat hartzen ari zara (Sintrom[®], Aldocumentar[®], Pradaxa[®], Eliquis[®], Lixiana[®], Xarelto[®]), eta hartzeari utzi behar diozu, interbentzioa segurtasun osoz egiteko eta odoljariora izateko edo gertakari tronboenboliko bat izateko arriskua saihesteko.

Horregatik, EZINBESTEKOA DA PROZEDURA BAINO GUTXIENEZ 5 EGUN LEHENAGO HITZORDUA ESKATZEA TRATAMENDU ANTIAGOAGULATZAILEAREN KONTROLAZ ARDURATZEN DEN MEDIKUAREKIN, ETA HARK ADIERAZIKO DIZU ZER JARRAIBIDE JARRAITU BEHAR DUZUN. HORI EZ EGITEAK EBAKUNTZA BERTAN BEHERA UZTEA EKAR DEZAKE.





JARRAITU BEHARREKO JARRAIBIDEA

ANTIKOAGULATZAILEA			Sintrom® □ Aldocumar® □ Pradaxa® □ Eliquis® □ Lixiana® □ Xarelto® □			
Hasierako balorazioa	Pisua:	IGE:	Arrisku tronboenbolikoa	HANDIA □	MODERATUA □	TXIKIA □

EGUNA	-5	-4	-3	-2	-1	0	+1	+2	+3	+4	+5
PILULA	BAI/EZ	BAI/EZ	BAI/EZ	BAI/EZ	BAI/EZ	BAI/EZ	BAI/EZ	BAI/EZ	BAI/EZ	BAI/EZ	BAI/EZ
INJEKZIO*	BAI/EZ	BAI/EZ	BAI/EZ	BAI/EZ	BAI/EZ	BAI/EZ	BAI/EZ	BAI/EZ	BAI/EZ	BAI/EZ	BAI/EZ

**Injekzioa beharrezkoa bada, goizeko 09:00etan jarriko da. Ebakuntzaren egunean EZ da injekzioa jarriko, azken injekziotik eta interbentzioa hasi arte 24 ordu igaro behar direlako.*

Funtsezkoa da adierazten zaizun jarraibideari jarraitzea; izan ere, hori egin ezean, ebakuntza bertan behera gera daiteke

Ebakuntza egin ondoren ospitaleratuta geratzen bazara, interkontsulta bat egingo zaio Hematologiari, jarraitu beharreko jarraibidea adierazteko.

Ebakuntzaren ondoren alta ematen bazaizu:

- Ebakuntza egin dizun zerbitzuak kontraindikaziorik egiten ez badu, adierazi zitzaizun jarraibideari jarraituko diozu (injekzioarekin edo injekziorik gabe berriro hartuko duzu pilula antikoagulatzailea).*
- Ebakuntza egin ondoren alta ematen badizute eta tratamendu antikoagulatzailea berriz hasi ezin baduzu, ebakuntza egin dizun zerbitzuak idatziz emango dizu jarraitu beharreko jarraibidea (zerbitzu horrek Hematologiarekin kontsultatu ahal izango du), eta ahal den lehen lanegunean zure tratamendu antikoagulatzailea kontrolatzen duen zerbitzura joango zara, zer jarraibide jarraitu behar duzun adierazteko.*

Egina: 2019ko urria

Informazio gehiago nahi baduzu, galdetu arreta ematen dizuten profesionali.

